GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUA "REHABILITACIÓN DEL FRONTÓN" PROIEKTUKO OBRAK PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

I. ASPEKTU OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-plegu honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: "REHABILITACIÓN DEL FRONTÓN" proiektuko obren exekuzioa, eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-plegu honek kontratu-balioa du.

CPV kodeak:

45200000-9 Higiezinak eraikitzeko eta ingeniaritza zibileko lanak

45212200-8 Kirol-instalazioak eraikitzeko lanak

45261000-4 Estalkiak eta itxitura-egiturak eraikitzeko lanak eta lan lotuak

Kontratuaren izaera kontuan izanik, ez da zatietan banatzen, SPKL art. 99.3.b) ezarritakoa betetzen baita.

2. KONTRATAZIOAREN BEHARRIZANAREN JUSTIFIKAZIOA

Preskripzio teknikoen agirian azaltzen dira kontratua hau gauzatzeko Administrazio honen arrazoiak.

3. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea hau da: HAMAZORTZI (18) HILABETE. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan bukatzen ez badira, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

4. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (743.751,88 €), gehi EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (156.187,89 €) BEZari dagozkionak. Lizitatzaileek aurrekontua hobetu dezakete.

Kontratuaren balio zenbatetsia 743.751,88 € da, BEZ kenduta.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da, behar bezala xehatuta. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean.

Kontratua oroharreko prezioan esleituko da, nahiz eta, pleguaren I. eranskinean adierazten den bezala, proposamen ekonomikoari proiektuaren aurrekontu partzialetan agertzen diren obra-unitate bakoitzerako prezio unitarioen banakapena erantsi beharko zaion eranskin gisa, horiek eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko balio izan baitiote lizitatzaileari. Unitateko prezioen zerrenda horrek eskaintza ekonomikoaren egokitasuna baloratzeko baino ez du balioko, eta inola ere ez dira kontratuaren parte izango, eta ez dira aplikatuko obra-ziurtagirietan; izan ere, horietan, lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzari dagokion baja-ehunekoa aplikatuko da, lizitazio-tasari dagokionez, eta proiektuaren unitateko prezio guztiei berdin.

5. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan eta baita Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera, Kultura eta Kirola Sailak emandako dirulaguntza. Bestaldetik, beharrezkoa izanez gero, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

6. NOLA ORDAINDU

Burututako obrak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, eta dagozkion fakturetan jasota geratu dadin, adierazten da kontabilitate publikoko gaietan konpetentzia duen administrazio-organoa Idazkaritza-Kontuhartzailetza dela, eta Kontratazio-organoa Udalbatza dela.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA
Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)
- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, SPKLren 103.1 artikuluarekin bat etorriz.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea 17. baldintzan aipatutako eskakizunean azaltzen dena izango da. Bermea jartzeko bidea, berriz, SPKLren 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

I.F.K.: P-4805600-F

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki erraztu bidez egingo da, SPKLren 159 artikuloaren 1.tik 5. atalera bitartean aurrikusitakoaren arabera. Izapidetzerakoan, aipatutako Legean eta bera garatzen duten arauetan jarritako egin beharrekoak jarraituko dira.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau elektronikoki izapidetuko da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedapenekin bat etorriz. Ondorioz, udala eta lizitatzaileen arteko harremanak ere elektronikoki izango dira.

11. JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

Espediente honi dagozkion jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, ondorengo prozedura jarraituz:

1) Jasotzailearen eskura jarri.
2) Jakinarazpen edo komunikazioaren edukira sartzea.

Epeak jakinarazpen abisutik zenbatzen hasiko dira (jakinarazi behar den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaileen profilean), edo jakinarazpena hartzen denetik (egintza egun berean ez bada argitaratzen kontratatzaileen profilean).

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotakoan, jasotzaileak ez badu onartzen edo errefusatzen badu, amaitutzat emango da, eta jakinarazpen izapidea formalki amaitutzat emango da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan; baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte; kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta; eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta badaude, prozedura ireki errazturako SPKLren 159.4 artikuluan eskatzen den bezala. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 17. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Halaber, bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez egin ahal izango dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

13. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena, balio-judizio baten araberakoak direnak eta automatikoki antzematen direnen artean bereiztuta, honako hauek dira:

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

a) BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKOAK DIREN IRIZPIDEAK..... (25%) 25 puntu.

a.1) Jarduketa-programa eta lan-metodologia.....Gehienez 10 puntu.

Baloratuko dira: obraren planteamendua orokorrean eta, bereziki, irisgarritasun plana (ibilgailuen eta oinezkoen trafiko-desbideratzeak, sarbideei afekzioa,...) segurtasun eta seinaleztapena (obrako ordutegian, eta obraz kanpokoan baita), inguruneari ahal denik eta afekziorik gutxien izatea, euskara ezagutzea eta obran bertan erabiltzea eta lanen exekuzio epea gutxitzea.

a.2) Proposatutako hobekuntzak, aurreko puntuan ezin direnak sartu .....Gehienez 10 puntu.

Baloratuko dira: hobekuntza teknikoak, obraren exekuzioan hobekuntzak, eta baita ere kontratuaren exekuziorako betebehar berezietan (21.baldintzan eta SPKLren 202 artikuluan ezarritakoak) hobekuntzak.

a.3) Baliabide pertsonalak ..... Gehienez 5 puntu

Enpresaren giza-baliabideak baloratuko dira. Bereziki, obrara atxikitutako langileen kurrikulum eta esperientzia, eta beraien euskararen ezaguera nahikoa (gehien bat obrako buruzagi eta arduraduna eta udalarekin harremanak dituzten pertsonak)

Irizpide bakoitzeko puntuaketa, ondorengo puntuazio-baremoen arabera jarriko da:

- Eskaintza ez nahikoa..... Irizpidearen gehienezko puntuaketaren %40ra arte.
- Eskaintza nahikoa.....Irizpidearen gehienezko puntuaketaren %50ra arte.
- Eskaintza ona..... Irizpideen gehienezko puntuaketaren %75ra arte.
- Eskaintza nabarmengarria..... Irizpideen gehienezko puntuaketaren %100ra arte.

SPKLren 146.3. artikuluaren arabera, hautaketa-prozeduran jarraitzeko, balio-judizio baten araberako irizpideetan orokorrean puntuaketaren %50 gutxienezko ataria jartzen da. Hori horrela, Kontratazio-Mahaiak ez ditu kontutan hartuko 12,50 puntura heltzen ez diren eskaintzak.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

b) AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK..... (75%) 75 puntu.

b.1) Eskaintza ekonomikoa.....Gehienez 70 puntu

Siendo,
Izanik,

OLic: Lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa.
OMed: Aurkeztutako eta onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa.
UTm: Ausarkeria ataria, kasu honetan, aurkeztutako eta onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren 10 portzentai-unitate baino zenbateko txikiagoa.
UTm=90% x OMed
PuntosMax: Gehienezko puntuaketa 70 puntu.
PLic: Lizitatzailearen puntuaketa.
T1: Lehenengo puntuaketa tarteari dagozkion puntuak:
T1=95% x PuntosMax=66,50

T2: Bigarren puntuaketa tarteari dagozkion puntuak:
T2=PuntosMax - T1= 3,5

Ondorengo balorazio-tarteak ezarri dira:

1.- Lizitatzailearen eskaintza ausarkeria atalaren berdina edo altuagoa bada **(OLic≥UTm)**, ondorengo eran puntuako da:

$$PLic = \frac{U_{Tm}}{O_{Lic}} \times T1$$

2.- Lizitatzailearen eskaintza ausarkeria atala baino baxuagoa bada **(OLic<UTm)** eta onargarritzat hartu bada, ondorengo eran baloratuko da:

$$PLic = T1 + T2 \times \left(1 - \frac{O_{Lic}}{U_{Tm}}\right)$$

Eskaintzak neurrigabeak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak ondorengoak izango dira:

Eskaintzaren zenbatekoa, onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren hamar (10) portzentai-unitate baino txikiagoa izatea.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

Kasu horretan plegu honetako 17. baldintzan ezarritako prozedura jarraituko da, SPKLren 149. artikuluarekin batera.

b.2) Berme-epea luzatzea..... Gehienez 5 puntu

Plegu honetan adierazitako eta legez ezarritako berme-epea luzatzeagatik, 1 puntu urte bakoitzeko.

Legeak ezarritako berme epeak hauek dira:

- Egiturazko segurtasunari eragiten dioten akatsak ... ... 10 urte
- Bizigarritasunari eragiten dioten akatsak ... ... 3 urte
- Akabera-akatsak ... ... 1 urte

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Amaia Zabala Goikoetxea, Gizaburuagako Udaleko alkatea, edo honek ordezko izendatua.

- Batzordekideak: Maria Pilar Eizagirre Murelaga, Gizaburuagako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea.

- Mahaiko idazkaria: Maria Pilar Eizagirre Murelaga, Gizaburuagako Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea edo honek ordezko izendatua.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUAK ESKURATZEA

Lizitazio hau udal honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Euskadiko Kontratazio Elektronikorako Plataforman dagoena.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataforma horren bidez, egutegiko HOGEI (20) eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, epearen azken eguneko 14:00ak arte.

Gizaburuagako Udaleko kontratatzailearen profilera sarbidea **www.gizaburuaga.eu** helbidearen bitartez egin daiteke. Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan emango da, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez 12 egun lehenago egindako eskariak badira.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

SPKLren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko aipatutako bitartekari elektronikoen bitartez aurkezten ez diren eskaintzak. Horretarako, derrigorrezkoa da Euskadiko Kontratazio Plataformako edo Sektore Publikoko Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko edozein agiri ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko zaio lizitatzaileari, jakinarazten zaionetik gehienezko 24 orduko epean, aurkez dezan formatu digitalean erratutako fitxeroan zegoen agiria. Geroztik aurkeztutako agiriak ezingo du inolako aldaketarik izan, eskaintzan aurkeztutako originalarekin alderatuz. Kontratazio Organoak egiaztatzen badu agiriak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontutan izango.

Eskaintzak Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honetan xedatutakoari egokitu beharko dira eta bere aurkezpenak suposatuko du lizitatzaileak onartzen dituela oso-osorik aipatutako baldintza edo betebehar horiek, inolako salbuespen edo erreparorik gabe. Baita ere, suposatuko du baimena ematen zaiela Kontratazio Mahai eta Organoari datuak kontsultatzeko, bai Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, bai Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.

Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du, aldaeren onarpenaren kalterik gabe. Ezin izango du ere aldi baterako enpresa elkarte batean eskaintzarik aurkeztu, bakarka aurkeztu badu, ezta ere aldi baterako elkarte baten baino gehiagotan agertu. Arau horiek hausteak berekin ekarriko du lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Informazio publikoa lortzeko indarreango legerian xedatutakoaren kalterik gabe, ezta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari eta esleipenaren publizitateari buruzko SPKLren xedapenen kalterik gabe, lizitatzaileek izendatu ahalko dute isilpeko lez eskaintzak egiterakoan emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei dagokiena eta eskutuko alderdienak. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

Lizitatzaileek kartazal elektroniko bi aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo bera ordezkatzen duen pertsonak izenpetuta; eta baldintza honetan, kartazal bakoitzerako zehazten den edukiarekin.

«A» KARTAZAL ELEKTRONIKOA.-«GAITASUNA, KAUDIMENA ETA BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO IRIZPIDEAK»

Kartazal honetan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Gaitutako posta elektronikoko helbidea.

Gaitutako posta elektronikoko helbide bat izendatu behar da, SPKLren hamabostgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Bertan egingo dira kontratazio espediente honi dagozkion jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko berariazko aitorpena.

Aitorpen horretan lizitatzaileak agertuko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita plegu honetan, bereziki 12 eta 17. baldintzetan, kontratua lortzeko ezarritako betebeharrak.

Hala ere, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak, prozedura behar bezala gauzatuko dela bermatzeko, lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango du, esleipena egin aurreko edozein unetan.

Aldi baterako enpresa-elkarte batean (ABEE) parte hartzen duten operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta horietako bakoitzaren izenak, inguruabarrak eta ABEEan izandako partaidetza zehaztu beharko dituzte.

SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideetan oinarritzen den kasuetan, horretariko bakoitzak ere erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko du.

c) Plegu honetako 13 baldintzan zehaztutako balore-judizio baten araberakoak diren irizpideei dagozkien agiriak.

«B» KARTAZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK»

Kartazal honek ondorengo agiriak izango ditu:

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

a) Eskaintza ekonomikoa II. eranskineko ereduari egokitua.

b) Obraren exekuzio materialerako aurrekontua, banakako prezioen zerrendarekin batera.

c) Plegu honetako 13. baldintzan zehaztutako automatikoki antzematen diren beste irizpideei dagozkienak.

Legean eta plegu honetan exijitutako nortasun, gaitasun eta kaudimen betebeharrak badaudela hautemateko une erabakigarria eskaintzak aurkezteko epearen bukaerakoa izango da.

17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

I.F.K.: P-4805600-F

1. «A» KARTAZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak, gutxienez 48 ordu aurretik kontratatzailearen profilean argitaratuko den toki, egun eta orduan, "A" kartazalak elektronikoki irekiko ditu eta aztertuko du bertan dauden agiriak, bai kontratua lortzeko ezarritako betebeharren betetzeari dagokienak, bai balio-judizio baten araberako irizpidei buruzkoak.

Egintza honen ondoren, Mahaiak udal zerbitzu teknikoei igorriko dizkie agiriak, aipatutako irizpideen balorazioa egin dezaten. Edo, bere kasuan, beharrezko deritzon txosten teknikoak eskatuko ditu, SPKLren 146.2.b), 150.1 eta 157.5 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hori horrela, beharrezko balitzateke agirietan akats eta hutsuneak zuzentzea, Mahaiak gehienez sei laneguneko epea emango du beraiek zuzentzeko, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko RD 817/2009ren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. «B» KARTAZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA ETA LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKO EGINTZAK

«A» kartazal elektronikoa ireki eta zerbitzu tekniko eta, eskatutako txosten tekniko bitartez, balio-judizio baten araberako irizpideen balorazioa egin ondoren, Kontratazio Mahaiak, udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko den toki, egun eta orduan, «B» kartazalak irekiko ditu eta ondorengo egintzei ekingo dio:

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

1.- Balore-judizio baten araberako irizpideen balorazioaren emaitza jakitera ematea.

2.- Lizitatzaile bakoitzaren «B» kartazala irekitzea eta bere edukina irakurtzea.

Egintza horren ondoren, saio berdinean edo beharrezko diren saioetan, Mahaiak ondorengo egintzak burutuko ditu:

1.- Bere kasuan, pleguko betebehar eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu.

2.- Automatikoki edo formulak erabiliz zenbatu daitezken irizpideak baloratzea.

Beharrezkoa baderitzo, erabakiko du agiriak udal zerbitzu teknikoei igortzea, aipatutako irizpideen arabera eskaintzak aztertzeko eta beharrezko kalkuloak egiteko.

3.- Eskaintza bakoitzak lortutako puntuaketa osoa ezartzea eta gutxiagotuz doan ordenean sailkatzea.

4.- Puntuaketa onena duen lizitatzailearen aldeko esleipen-proposamena egitea.

Esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde. Administrazioarekiko eskubideak ez dira eskuratuko kontratua gauzatzen ez den bitartean.

Puntuaketa onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxuegia dela susmatzen bada, 149. artikuluan aurrikusitako parametroen arabera, Mahaiak aipatutako artikuloan araututako prozedura jarraituko du. Bere eskaintza justifikatzeko lizitatzaileari emango zaion epea gehienez bost lanegunekoa izango da, dagokion jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatuta.

Egindako guztia jasota geratuko da espedientean, derrigorrez idatzi behar diren akten bitartez.

5.- Euskadi Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera sartzea eta kontratuaren esleipenerako proposatutako lizitatzaileak betetzen dituela nortasun, gaitasun, kaudimen eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko datuak egiazkoak direla egiaztatzea.

6.- Komunikazio elektroniko bitartez errekerimendua egitea kontratuaren esleipenerako proposatutako lizitatzaileari, komunikazioa bidaltzen denetik zenbatu

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

beharreko zazpi laneguneko epean ondoren adierazten diren egintzak egin edo adierazten diren agiriak aurkez ditzan:

a) Behin-betiko bermea eratu denaren egiaztagiria aurkeztea.

b) Bere kasuan, lizitatzaileari beharrezko baliabideak emango dizkioten erakundeen konpromisoa, SPKLren 75.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Bere kasuan, kontratuaren exekuzioan erabilko dituela agindutako bitartekariak benetan dituela egiaztatzeko agiriak, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

d) Kontratatzeko kaudimena egiaztatzea

Kaudimen tekniko/profesionaleko gutxieneko betekizunak

Obra horren balio zenbatetsia 500.000 eurokoa edo handiagoa denez, ezinbesteko baldintza izango da sailkapen hau egiaztatzen duen agiria aurkeztea:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
C- Eraikuntza	**Azpitaldea 3.- Metalezko egiturak**	**3**

SPKLren 78.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, espainiarrak ez diren baina Europar Batasuneko estatu kideetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren enpresaburuei ez zaie kalfikaziorik eskatuko, ez kontratura bakarka aurkezten badira, ez elkarte batean integratuta badaude. Nolanahi ere, jarraian adierazten diren kaudimen-betekizunak egiaztatu beharko dituzte:

1 Ekonomia- eta finantza-kaudimena:

Honela egiaztatu ahal izango da:

- Obrak amaitu arte indarrean dagoen lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria, kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbateko berdina edo handiagoa estaltzen duen berme-aldia barne.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

- Kontratuak hartzen duen eremuko urteko negozio-bolumena, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako ekitaldi onenari dagokiona, kontratuaren balio zenbatetsiaren halako bat eta erdi gutxienez.

Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresa erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta dagoen Erregistro Ofizialean gordailatutakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute beren negozio-bolumena.

2 Gaitasun teknikoa edo profesionala

Azken bost urteetan burututako obren zerrenda, kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde berari dagokiona, ondo burutu izanaren egiaztagiriekin abalatua. Ziurtagiri horietan adieraziko dira obren zenbatekoa, datak eta lekua, eta zehaztuko da ea lanbidearen arauen arabera egin ziren eta normalean ondo amaitu ziren, eta eskatuko da zenbait obraren baturaren banakako zenbatekoa oraingo kontratuaren balio zenbatetsiaren parekoa izatea, gutxienez.

I.F.K.: P-4805600-F

Obra-kontratuaren esleipendun gertatzen diren Europar Batasunekoak ez diren enpresek sukurtsal bat ireki beharko dute Espainian, beren operadoreentzako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

SPKLren 88.2 artikuluaren arabera, enpresa sortu berrien kasuan, SPKLren 88.1 artikuluan aipatutako b) letratik f) letrara bitartekoekin egiaztatuko da haien kaudimen teknikoa.

Nolanahi ere, kaudimen teknikoko gutxieneko irizpide gisa ezartzen da, SPKLren 140.3 artikuluaren arabera egiaztatu beharko dena, esleipena egin aurretik lizitatzaileak benetan baduela hori, eta konpromisoa hartzen duela obrei atxikitzeko gutxienez laneko segurtasunaren eta osasunaren arduradun den OROko buru batek eta gutxienez bost urteko esperientzia duen arduradun orokor batek osatutako talde bat.

Baliabide pertsonal horiek lizitatzaileek aurkeztutako proposamenaren parte izango dira, eta, beraz, esleipendunarekin sinatzen den kontratuaren parte, eta funtsezko betebehartzat hartuko dira SPKLren 76.1 artikuluaren ondorioetarako, SPKLren 211. artikuluari dagokionez; beraz, esleipendunak mantendu beharko ditu obrak egikaritzen diren denbora guztian. Bajengatik, aldi baterako ezintasunagatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuengatik, atxikitzeko konpromisoa hartu

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

duen pertsonaren batek ezin badu zerbitzua pertsonalki egin, esperientzia eta kualifikazio bera egiaztatzen duten beste pertsona batzuek ordezkatu ahal izango dute, betiere aldez aurretik enpresak berariaz hala adostuta.

ABEE: zenbait enpresaburu edo profesional lizitaziora aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuz joaten badira, guztien artean egiaztatu beharko dute kaudimen tekniko eta profesionaleko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela, guztien artean eskatutako gutxieneko taldea osatu dezaten, taldeko beste kide batzuek ere parte har dezaketela alde batera utzi gabe. Kaudimen ekonomiko-finantzarioari dagokionez, nahikoa izango da taldeko kideren batek hori egiaztatzea.

Lizitatzaileari eskatzen zaionean egiazta dezala benetan dituela kontratuari atxikitzeko hitzemandako baliabideak, gutxieneko kaudimen-baldintzak betetzen dituela justifikatzeko, kontratuari atxikitzeko konpromisoa hartzen duen langileen zerrenda sinatu bat aurkeztu beharko du, curriculum vitaea edo historia profesionala erantsita, eta bertan adierazi beharko du zer dedikazio duen eta zer harreman duen lizitatzailearekin, lan-harremana bada, lankidetza-konpromiso bat edo azpikontratazioa aurreikusten den. Azken kasu horretan, azpikontratatuko den lan-zatia zehaztu beharko da, esku hartuko duten azpikontratistak eta, hala badagokio, emandako kaudimena adierazita. Azpikontratista edo kolaboratzaile bat ere ezin izango da egon kontratatzeko debeku-kausetan.

Kaudimena azpikontratazioaren bidez egiaztatzen bada, lizitatzaileak azpikontratistekin kontratua gauzatzeko konpromiso formal bat dagoela egiaztatzen duen dokumentu bat aurkeztu beharko du, eta kasu horretan guztien kaudimena batuko da.

e) Esleipendunak, nahitaezko aseguruez gain, Eraikuntzako Arrisku orotako Poliza bat sinatu beharko du, honako hauek estaliko dituena:

- Obrek eraikuntza- eta berme-aldian izan ditzaketen kalteak, esleipenaren zenbatekoaren mugaraino, naturaren arriskuen ohiko arriskuetatik (sutea, tximista, leherketa, talka, bandalismoa eta asmo txarreko ekintzak, etab.) eratorritakoak, baita greba, matxinada, sabotajea, konmozio zibila eta terrorismoa ere.

- Erantzukizun zibil orokorra, patronala eta gurutzatua, obran esku hartzen duen pertsona oro aseguratuko duena, eta hirugarren pertsonei eragindako kalteengatik eragin dezakeena, baldin eta kalte horiek langileen, langileen eta mendekoen (iraunkorrak edo noizbehinkakoak) ekintzetatik, makineriatik eta ekipotik eratorritakoak badira, bai eta esleipenaren xede diren obrak gauzatu bitartean egindako lanen ondorio badira ere, eskala honen arabera:

Kontratuaren zenbatekoa berme-muga

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

150.250,00 €-raino, kontrataren aurrekontuaren % 75
150.250,00 eta 600.000,00 € artean, kontrataren aurrekontuaren % 75
600.000,00 eta 1.200.000,00 € artean, kontrataren aurrekontuaren % 75
1.200.000,00 eta 3.000.000,00 € artean, kontrataren aurrekontuaren % 50
Kontratu-aurrekontuaren % 50 3.000.000,00 €-tik gorakoa bada

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak konpon daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epea emango da akatsak zuzentzeko. Lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

Horretarako emandako epean esleipendun izateko proposatutako hautagaiak behin betiko bermea edo eskatutako beste dokumenturen bat aurkezten ez badu, esleipen-proposamena egingo zaio puntuazioan hurrengoa den hautagaiari, eta dagokion epea emango zaio behin betiko bermea eratzeko.

I.F.K.: P-4805600-F

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontuhartzailetzak gehienez 5 egun naturaleko epean gasto-konpromisoa ikuskatu ondoren, 159.4 artikuluaren arabera, kontratazio-organoak esleipena onartuko du, bost laneguneko epean, lehen sailkatuari eskatutako agiriak jasotzen direnetik kontatzen hasita, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta udal honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den hamabost (15) egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak Administrazio honen bulegoetara etorri beharko du, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Azkenik, formalizazio-dokumentuan jasotzen den epearen barruan (sinatu eta gehienez hilabetera), esleipenduna Administrazio honetara etorriko da proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzera. Une horretatik aurrera, kontratuaren exekuzio-epea kontatzen hasiko da.

19. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak, behar bezala arrazoitutako herri-onurako arrazoiengatik, erabaki ahal izango dugu kontratua ez esleitzea edo ez gauzatzea. Baita ere, prozedura bertan behera utzi dezake konpondu ezineko akatsa aurkitzen badu kontratua prestatzeko arauei edo esleipen prozedurari buruzko arauei dagokienez. Bai kontratua ez gauzatzeko erabakia, bai prozedura bertan behera uztea kontratua formalizatu baino lehen egin beharko dira, eta aipatutako artikuluan ezarritako baldintzak betez.

III. KONTRATUA BURUTZEA

20. KONTRATUAREN BURUTZEAREN ERREGIMEN OROKORRA

Obretarako kontratuaren burutzea, zuinketa egiaztatzeko akta izenpetzearekin hasiko da; egintza hori kontratua formalizatzen denetik hilabete pasatu baino lehen egin beharko da.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, SPKLren 239. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

I.F.K.: P-4805600-F

21.- KONTRATUA BURUTZEKO GIZARTEARI, ETIKARI ETA INGURUMENARI DAGOKIEN EDO BESTELAKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau burutu ahal izateko, gizarte, etika, lan eta ingurumen-alorreko edo bestelako baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez:

Esleipendunak, kontratua burutzen den bitarteko kontratazio berrietan, baja eta ordezkapenetan, konpromisoa hartu behar du lanean sartzen direnen gutxienez %50a enplegu-bulegoetan langabetu bezala inskribatutako pertsonak izango direla, lehentasuna dutelarik lan-merkatura sartzeko sailtasunak duten kolektiboak (emakumeak eta luzaroan langabetuak). Kontratatutako obraren izaera berezia dela eta, ezinezkoa denean aipatutako portzentaian profil horietako pertsona langabetuak kontratatzea, esleipendunak azaldu, arrazoitu eta justifikatu egin beharko du eta, beti ere, administrazioak onartu beharko ditu salbuespen horiek.

Idatziak, oharrak, seinalizazioak eta bestelako mezu orokorrak gutxienez euskaraz egingo dira. Jarri aurretik, udalean egiaztatuko da hizkuntz aldetik zuzenak direla.

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

Obrako arduradunak eta udalarekin harremana duten pertsonak euskararen ezaguera nahikoa izan beharko dute, ahoz zein idatziz euskaraz jardun ahal izateko bestekoa.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLren 201 artikuluak xedatzen duenaren arabera, betebehar horiek ez betetzeak kontratua etetea ekar dezake berarekin, 211.1.f). artikuluan adierazi den moduan.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: agiri honetan ezarritako baldintzak; baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoen Kontratu Legean eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

I.F.K.: P-4805600-F

22. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Baita ere, aplikagarri zaion sektoreko hitzarmen kolektiboarenak ere. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

23. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

24. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLren 203tik 207ra eta 242. artikuluetan espresuki jasotako egoera eta

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

baldintzetan beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

SPKLren 242.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan proiektuan ez dauden obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, aldaketa horien prezioak Administrazioak zehaztuko ditu. Kontratistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

25. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Datuen Babeserako Erregalamendu Orokorrean eta SPKLren hogeita bostgarren xedapen gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

26. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obren harrerarako egintza formal eta positiboa egingo da eta horren akta egingo da.

Gainera, HAMABI (12) HILABETEko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako berme bezala jartzen dena.

Nolanahi ere, kontratistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

27. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Kontratistari zigorrak ezarriko zaizkio, ondoren adierazitako arrazoiengatik:

a) Kontratua burutzeko epeak ez betetzea

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko, BEZ kenduta.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

b) Prestazioen burutzapen partziala ez betetzea

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du, BEZ kenduta; eta diru-zigorrek guztira hitzartutako prezioaren 100eko 50a ezingo dute gainditu.

c) Ingurumen, gizarte edo lan-alorretako betebeharrak ez betetzea

Ingurumen, gizarte eta lan-alorretako betebeharrak ez badira betetzen, bereziki soldaten ordainketan atzerapenak edo hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak baino soldata-baldintza txarragoak ezartzea, azken hau larria eta engainuzkoa denean, Administrazioak, SPKLren 201.artikulua aplikatuz, diru-zigorrak ezarri ahalko ditu; kontratuaren prezioaren ehuneko hamar baino gehiagokoak ez, BEZ kenduta. Diru-zigorren osokoa ezingo da izan adostutako prezioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagokoa.

d) Azpikontratistekin betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluaren kalterik gabe, azpikontratistekin dituen betebeharrak ez baditu betetzen, Administrazioak diru-zigorrak ezarri ahalko ditu, kontratuaren prezioaren ehuneko hamar baino gehiagokoak ez, BEZ kenduta. Diru-zigorren osokoa ezingo da izan adostutako prezioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagokoa.

28. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta 245. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO
UDALA
Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)
- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

29. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistak laga ditzake kontratuaren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati, beti ere:

Lagatzailearen balio tekniko edo pertsonalak ez badira izan kontratuaren esleipenaren arrazoi; lagapena dela eta ez bada merkatuan egiazko konpetentzia murrizketa sortzen; lagapenak ez badu funtsezko aldaketarik suposatzen kontratistaren ezaugarrietan, horiek kontratuko oinarrizko elementua izan badira; eta lagapena egiten bada SPKLren 214.2 artikuluko betebehar eta baldintzak betez.

30. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak prestazioaren zati bat hirugarren batzuekin adostu dezake. Edozein kasutan, azpikontratazio horrek azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215 eta 216. artikuluetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu .

I.F.K.: P-4805600-F

IV.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

31. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, aipatutako legearen aurka ez doan arauetan; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

32. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuaren burutzea dela eta kontratistari legokion erntzukizuna adieraztea, kontratuaren burutzea etetea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea SPKLren

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

33. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikulutik 60. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1ko 39/2015 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtso berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

Gizaburuagan, 2021eko abenduaren 29an

Idazkariak

GIZABURUAGAKO
UDALA
(Bizkaia)

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

I ERANSKINA. KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO AITORPEN EREDUA

.....jaunak/andreak, helbidea ..... PK ....., NAN zk. ....., Telefonoa ..... e-posta.....duenak, zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondorengoaren ordezkaritzan..... helbidea ..... PK ....., telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., "Rehabilitación del Frontón" obrak kontratatzeko asmoz Gizaburuagako Udalak dei egindako prozeduraren jakinaren gainean egonik, eta nire erantzukizunpean, hona hemen nire

ADIERAZPENA:

I. Aipatutako sozietatea, bere administratzaile eta legezko ordezkariak, eta sinatzailea ez daudela kontratatzeko inolako debeku eta bateraezintasun egoeretan, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatzen direnetan.

II. Aipatutako sozietatea, indarreango xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela.

III. Aipatutako sozietatea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, altan dagoela.

IV. Aipatutako sozietateak ez daukala zerga-zorrik ordain-arazpen aldian administrazio kontratatzailearekin, edo bermatuta dituela.

V. Aipatutako sozietateak, kontratua hau lortzeko, Administrazioa Baldintza Zehatzen Plegu honek ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, bereziki 12. eta 17. baldintzetan zehaztutakoak.

....., 20....(e)ko ..... aren ....(a)

Izenpea

I.F.K.: P-4805600-F

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

II ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKO EREDUA

.....jaunak/andreak, helbidea ..... PK ....., NAN zk. ....., Telefonoa ..... e-posta.....duenak, zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondorengoaren ordezkaritzan..... helbidea ..... PK ....., telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., "Rehabilitación del Frontón" obrak kontratatzeko asmoz Gizaburuagako Udalak dei egindako prozeduraren jakinaren gainean egonik, eta nire erantzukizunpean, hona hemen nire

ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, gehi ..... €, azken kopuru hori BEZaren % .....ari dagokiona. Epea hau izango da: ..... hile. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

Eranskin bat erantsi da, proiektuaren araberako prezio unitarioak banakatuta, eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko balio izan dutenak.

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko ..... aren ....(a)

Izenpea

I.F.K.: P-4805600-F